

IPARRAGIRRE, URRETXUKO KOBLAKARIA

Irati Goikoetxea

Beasain, 15 urte

Iparragirre abila dela
entzuna dugu askotan,
kanta, olerki eta bertsoak
ehotuz bere errotan,
gitarra adiskide,
ta adierazpide,
Xenpelarren doinu hontan,
bere bizitza pausorik pauso
azaldu nahi dut bertsoan. (bis)

Mila zortziehun eta hogeian
ekarri zuten mundura,
Kale Txiki ta Goiko Kalea
Jolasleku ta jomuga,
Urretxuko semea,
gozo bezain xumea,
abenturaz abentura,
Irimopean hazi zen gizon
handi izango zen hura. (bis)

Ume zelarik Zeraina joan zen
gaztelera ikastera,
gero latinak Gasteiz bidean
ipini zuen osterera,
hamalau urterekin,
Madrilerantza ekin,
sendiarekin batera,

kabirik kabi dabilen txori
migrariaren antzera. (bis)

Gaztaroaren erdi aldera
ihesi Euskal Herrira,
Lehen Karlistadan parte hartuaz
gudarosteen harira,
ahotsaren indarrez,
doinu zerutiarrez,
beti aurrera begira,
bere bertsoak une garratzen
gozagarri izan dira. (bis)

Bergara aldeko besarkadari
egin zion irain franko,
harez geroztik isunak eta
zigorrek paira beharko,
lehenik burdin artean,
ta gero erbestean,
makina bat odol malko,
eta guztia bere herria
zinez maite zuelako. (bis)

Hezurmamituz foru, pakea,
aberria ta euskara,
herriminaren atzaparretan
hamaika abesti bada,
ametsetan amilduz,
milaka lagun bilduz,
bere hitzaren baitara,
denen artean loratuena
“Gernikako Arbola” da. (bis)

Batzutan pobre, bestetan alai,
Frantzian eta Suizan,
Europatik at Amerikara
barne irriken gerizan,
hogei urtetan artzain,
noiz etxeratuko zain,
poeta handien gisan,
azken hatsari kantua utziz
Ezki-Itsason hil zan. (bis)

Musikarekin busti zituen
bere bertsozko jardunak
Xenpelar, Bilintx eta Bordelen
garaikide ezagunak,
kantari dotorea,
olerkari hobea,
igaro arren egunak,
menderik mende bizirik darrai
gure artista euskaldunak. (bis)

DOINUA: IPARRAGIRRE ABILA DELA